



Man, Salvador Cerrera sculp.

Egilea: Asier Irureta
Taldea: DBH 4E
2010-11 ikasturtea

AURKIBIDEA

Jokin de Pedro.....	1
<i>Irurac bat</i>	
Kokapena.....	1
Edukia	
○ Gaia.....	1
○ Argumentua.....	1-2
Egitura.....	2
Pertsonaiak	
○ Nagusiak.....	3
○ Bigarren mailakoak.....	3
Forma	
○ Baliabide literarioak.....	3
○ Ahozko Baliabideak.....	4
Iritzi pertsonala.....	5
Bibliografia.....	5

JOKIN DE PEDRO:

Jokin de Pedro Bilbon jaio zen orain dela 56 urte. Aixerrrotako irakaslea da, alatenatibako irakaslea, eta eskola-liburu ugari idatzitakoa Euskal Hizkuntzan eta Literatura Alorrean.

Irurac bat apartez, beste haur liburu bat idatzi du, *Lau animala ipuin kontari* deitzen dena.

Irurac bat

KOKAPENA:

Nobela hau, gaur egungo giroan dago kokatuta, mugikorrak, trenbideak eta autoak aipatzen direlako.

Euskal Herrian gertatutako istorio da, zehatz-mehatz, Uriondon, bertan Miriam hil dut baina ez daki inork nork izan den, bakarrik daki Garik, ordaindu zuela Lidia hiltzeko.

Nobela hau bi edo hiru asteko iraupena du.

EDUKIA:

Irurac bat izenburu ona da baina, nik beste izenburu emango nion, hilketa gehiago nabarmenduz: *Uriondo, eta Aitor* edo *Uriondoko hilketa*.

Liburuaren kontrazala ez nuke aldatuko, oso erakargarria dela-eta. Aldatu behar banuke, ipiniko nuke mutil bat jantzi iluneko gizon bati ordaintzen kale oso ilun batean; beraiek bakarrik kale horretan.

○ GAIA:

Hilketa bat argitu behar da.

Hilketa bat pasa da Uriondon, norbaitek hil du Miriam, eta jakin behar dute nork izan den eta zergatik egin duen. Plan hau, Gari antolatu du eta Lidia hil nahi duelako.

○ ARGUMENTUA:

Aitor Itziarregandik banatu denetik gaizki pasatzen ari da, eta gaizki ez pasatzeko bizikleta hartzen du. Bertan Maiterekin aurkitzen da, eta laguntzen dio gurpila konpontzen. Beste egunerako geratzen dira.

Jantzi iluneko gizon bat, deitzen dio Gariri; bera esaten dio hil nahi duela bere emaztea, Lidia, eta horregatik mutil honi 15000€ ordaindu behar dio hiltzeko.

Lidia etxera ailegatu eta maleta egitera joan da kostaldean duen etxera asteburua pasatzeko; bera geratu ordez, bere auzoko eta lagun mina Miriam garatuko da etxean.

Aitor eta Maite bizikleta hartuz, Mendikobordara joaten dira bertan te bat edateko nekatuta daude-eta. Aitor harrিতта geratzen da grabatuta zegoen esaldiarekin, *Irurac bat*. Ondoren Maite Gariri deitu eta Aitorren telefonoa ematen dio.

Lidia geltokira joaten da treneko ticketa hartzeko; bidaiak berak etxeraino ailegatzen du.

Aitor esnatzen da bordan eta Maite bilatzera aritu da, baina borda itxita dago eta berak barruan dago. Hortik atera lortzen duenean, trenera joan da.

Jantzi iluneko gizona eta Gari berriro ikusten dira eta esaten dio Gariri bere lana amaituta dagoela, Lidia hil egin duela, eta diruaren bigarren partea ematen dio.

Aitor tren batean sartzera, jende guztia aurpegi arraro batez ikusten dio. Ondoren Lidia neskarekin esertzen da eta Aitor kontatzen dio zer gertatu zaion Mendikobordan. Aitor uzten dio beraren telefonoa Lidiari eta Gariri deitzen dio. Istoria kontatu ahala, Aitor konturatzen da borda hori, Lidia eta Garirena zela. Trena gelditu eta Aitorri 2 ertzain atxilotzen diote; Gari eta Lidia joaten dira beste ertzain batekin polizia-etxera, beraren etxean Miriam hil egin dutelako.

Gari eta Lidia Gorospe inspektorearengana joaten dira; lehen Gari joaten da baina bakarrik hitz egiten dute Aitor buruz, Lidiaren txanda denean, Gorospek ematen dio beraren telefonoa Lidiari zero zer gertatzerakoan.

Gari, Lidiari deitzen dio Labarrondora joateko eta bertan egoteko, baina Lidia beldur zegoenez, Gorosperen telefonoa dauka markatuta eta Gari eskopetaz apuntatzen dioenean, Gorospe eta beraren lagunak ateratzen dira. Gari amildegitik bere burua bota du eta Sara atxilotzen dute.

Zenbait egun pasa ondoren, Aitor topo egiten du Lidiarekin eta erabakitzen dute Mendikobordara joatea.

EGITURA:

Liburu hau bi zatitan dago banandutan, baina gero beste azpi-kapitulu daude atal bakoitzaren barruan. Guztira 14 kapitulu daude. Liburu honen luzera, 119 orrikoa da. Ondo bananduta dago baina, zenbait kapitulu kentzen badugu, hobeto izango liriteke, bestela egongo zinateke denbora guztian pausak egiten.

Nobela hau, ez du pertsona bakar batean zentratzen, baizik eta hiru pertsonetan, Aitor, Lidia eta Gari; hauek dira nobela honen protagonistak. Istoria hau, kronologikoki dago narratuta; narratzailea orojakilea da, gauza guztiak dakielako. Oso ondo bereizten dira hasiera, korapiloa eta amaiera.

PERTSONAIAK:

○ NAGUSIAK:

- Aitor: Pertsonaia hau, egun guztietan joaten da beraren bizikletarekin bueltatxo bat ematera. Itziar, Aitorren neska laguna zen baina, esan zion ez zuela maite 5 urte elkarrekin bizi ondoren.
- Lidia Etxenagusia: Gariren emaztea da, baina ez dira oso ondo konpontzen beraien artean. Konturatzen da, norbaitek Miriam hil duela, trenean jaitsi eta gero konturatze delako. Gainera, Miriam beraren auzokoa eta lagun mina zen. Ondoren konturatuko da Lidia, Gari berari hil nahi ziola eta ez Miriami.
- Garikoitz Aldamiz: Lidiaren senarra da. Kontratatu du gizon bati Lidia hiltzeko, baina Lidia hil beharrean, haren auzokoa eta lagun mina hil egiten du, Miriam.
- Ramon Gorospe: Ertzaintzaren detektibea da. Lidiari beraren telefonoa ematen dio behar bada, eta erabiltzen du; honi esker Lidia salbatzen da eta Gari hiltzen da.

○ BIGARREN MAILAKOAK:

- Itziar: Aitorren neska laguna zen.
- Miriam Biguri: Gari eta Lidiaren auzokoa eta Lidiaren lagun mina zen. Egun batean aurkitzen dute hilda Lidiaren pisuan.

FORMA:

○ BALIABIDE LITERARIOAK:

Normalean erabiltzen du askotan liburu honetan gauzak konparatzeko eta deskribapenak narratzerakoan, normala da metaforak, edo pertsonifikazioak erabiltzea.

“Izerdia bekokitik behera zipriztinetan dariola” (8. or.)

“ispilua bezlako ur azala” (109. or.)

“..., bere ametsezko paisaiarantz, Italiako laku urdinera dzanga egin du, ispiluko ur azala arratzera...” (117. or.)

○ AHOZKO BALIABIDEAK:

Erabiltzen duzunean ahozko baliabide hauek (atsotitzak, esamoldeak,...) normalean aurkitzen dugu elkarrizketa bat dagoenean eta are gehiago, pertsona hauek adin nagusikoak badira, beraiek, gu ez bezala, asko erabiltzen dutelako baliabide hauek komunikatzeko.

“Diruak bizi truk; bizia diru truk” (18. or.)
“Egia, egia.... Sudurraren ondoan begia” (83. or)
“Gezurak hanka labur” (84. or)
“Ez da gatzik aldiak ez daroanik” (89. or)

IRITZI PERTSONALA:

Lan hau nahiko korapilatsua izan da, irakurlea, beti egon behar da adi metaforak, konparazioak, atsotitzak eta abar bilatzen, eta ez da ezertaz enteratzen, orduan, edo egiten zuen gauza bat edo bestea.

Arazo bat zegoen Jokin de Pedroren biografia aurkitzeko, orrialde web askotan begiratu ostean, azkenean liburuan dagoen zatitxoarekin konformatu behar da.

Liburu honen alden nabarmena edo erakargarriena, izan da Aitor Mendikobordatik alde egiten zuenean eta trenean sartzen denean, ondoren bi ertzain etortzen dira eta atxilotzen dutenean. Bakarrik dago alde hau erakargarria, intrigarekin usten duelako, jakin nahi duzu zer gertatuko den. Alderik ahulena da, nobelaren hasieran, oraindik korapiloa ez denean hasi, Lidia egoten da denbora asko pentsatzen zer egingo duen, eta trenean sartzen da, ondoren egoten da denbora osoan jendeari begiratzen, parte hori ahulena da.

Egoera batzuetan, irakurlea identifikatu ahal da beraiekin, gehien bat Aitorrekin; adibidez, berak trenetik ateratzen denean eta harrituta edo liluratuta geratzen denean, egoera horrekin identifikatzen da, normalean jende guztiei gertatzen zaigulako.

Irurac bat giro moderno kokatuta eta leku hartutako istorioa oso ezaguna denez, iruditzen da irakurlea liburuaren barruan sartu ahal dela, hemen albon gertatutako istorioa da et aizan daiteke benetako istorioa.

Mugikorrak, trena, bizikleta eta gauza moderno hauek ateratzen da, eta irakurleak dakienez zer den gauza bakoitza, normalean edukitzen duzulako gauzatxo bat etxean, askoz errealista iruditzen da.

Irurac bat, Uriondoko auzo batean gertatutako istorioa da, liburu honetan Gari kontratatzen du gizon bati Lidia hiltzeko eta Aitor, ez duela ezer ez egin, sartzen da hiltzaile moduan.

Honetaz aparte, liburu hau, oso arraro eta nahaspilatsu da: Hiru istorio paralelo kontatzen ditu (Aitor, Gari eta Lidiarena) baina momentu baten batu egiten da.

Narratzailea, 3.pertsonan dago eta orojakilea da. Hau jakin dezakegu, pertsonaien sentimenduak deskribatzen dituelako.

Lexikoan, izan da apur bat zaila ulertzeko, zeuden hitz asko irakurlea ez duela ulertzen baina hiztegi batekin alboan, hitz guztiak ulertu ahal dira.

Liburu honetan dena den, irakurleak gauza bakarra aldatuko ahal du: Amaiera. Ez du uste amaiera hori oso egokia izan dela nobela honetarako, ez baitu istorioa bukatzen. Ez dakizu zer gertatuko den Aitor eta Lidiarekin, uzten du honela pentsatzeko zer gertatuko den, ea ezkonduko diren, ea Sara kartzelatik aterako den, ea jantzi iluneko gizona harrapatuko duten, e.a.

Orokorrean, liburu hau irakurle guztien gustuko izan ahal da, abenturazkoa, eleberri poliziala eta abar daudelako istorio honetan, adibidez, amaitzen duzunean atal bat, nahi duzu bestea hasi irakurrik, intriga usten duelako.

BIBLIOGRAFIA

- http://elkarargitaletxea.com/liburuak/default.cfm?hizkuntza=1&atala=artikulua_ikusi&id_produktoa=G81.109021 hemendik atera dut Jokin de Pedroren biografia.
- *Irurac bat*
- Elhuyar hiztegia
- <http://www.galtzagorri.org/euskara/argitalpenak/irurac-bat?p=1&a=0&g=0&i=Egilea&t=irurac> hemendik ideia batzuk hartu izan dut.